

Deskribapena

- Lanbide Heziketako tituluaren identifikazioa.
- Aldekideen identifikazioa.
- Lanpostuaren identifikazioa.
- Ordutegi-banaketa eta egutegia.

Diseinua, planifikazioa, jarraipena eta ebaluazioa

- Enpresan eta ikastetxean garatuko den programazioa.
- Ikastetxeko eta enpresako tutoreen aldetik ikasleak artatzeko plana.
- Ebaluaziorako sistema ezartzea.

Konpromisoa

- Ikasleak baldintzak eta ezaugarriak ezagutzen dituela ziurtatzen duen konpromisoa, idatziz eta sinatuta.

Lau aldagai euskaraz

- Ikasleak ezinbestean instruktore euskalduna izan behar du.
- Lau aldagai hartzen dira kontuan: instruktorea euskalduna izatea (ezinbestekoa), harrera euskaraz egitea, hizkuntza paisaiaren %50 euskaraz izatea eta lantaldearen %50 euskaraz aritzea.



MODALITATEAK

2 urteko modalitateak:

- 2 urteko planen helburua da ikasleek zikloan barneratzen dituzten gaitasunak indartzea; 1.300 orduko iraupena izango du gehienez.
- **2. ikasturtea:** Ikastetxea eta enpresa.

3 urteko modalitateak:

- 3 urteko planen helburua da ekoizpen prozesu konplexuak direla-eta enpresek dituzten beharrei behar bezalako erantzuna emango dien espezializazio bat eskuratzea; 2.600 orduko iraupena izango du gehienez.
- **2. eta 3. ikasturteak:** Ikastetxea eta enpresa.

HASIERA

Administrazio-izapideekin hasi baino lehen, ikastetxeak eta enpresak LH Dual proiektu edo plan bat prestatu beharko dute elkarrekin ikaslearentzat. Baimena izapidetu ondoren, ikastetxeak Eusko Jaurlaritzaren aplikazioan sartuko ditu planaren datuak, ondoren Hezkuntza Sailaren onspena jaso dezan.

Dokumentu ereduak Lanenpres eta Lanpres gidetan. lhdualaeuskaraz.eus

JARRAIPENA

Prozesuan zehar, ikastetxeko tutoreak eta enpresako instruktoreak jarraipena egingo dute, ezarritako LH Dual plana behar bezala betetzen dela zaintzeko.

EBALUAZIOA

Prozesuan zehar, irakasleek hartuko dute ikasleak ebaluatzeko ardura, enpresako instruktorearen ekarpena ere aintzat hartuta.

Laneki txostena aplikaziotik deskargatu eta ebaluatu.

EMAN BEHARREKO URRATSAK

1. Lanbide Heziketa Dualaren ereduaren interesatuta dauden enpresak harremanetan jarri beharko dira EAEko Lanbide Heziketako Ikastetxe publiko edo itunpeko-privatuetako batekin, edo bestela, enpresa-elkarte batean jakinarazi dezakete proiektuan parte hartzeko interesa dutela.
2. Programa datorren eskola-ikasturtean nola abiatu planifikatu ahal izateko, enpresak zer lanbide-profil lortu nahi duen jakinarazi beharko dio ikastetxeari eta enpresak dituen instruktore euskaldunen berri eman.

3. Ondoren, ikastetxeak hautagai posible batzuk proposatuko dizkio enpresari.
4. Enpresak bere eskakizun eta aurreikuspenetara gehien egokitzen den ikaslea hautatuko du.
5. Ikastetxeak eta enpresak ikaskuntza-heziketa-laneko plan bat zehaztuko dute ikaslearentzat. Planak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren baimena beharko du.
6. Enpresak eta ikastetxeak tutore bana izendatuko dute; lan kontratu edo beka bat formalizatuko da ikaslearekin, eta hitzarmen bat ikastetxearekin.

MODALITATEA	LEHEN IKASTURTEA					BIGARREN IKASTURTEA ETA ESPEZIALIZAZIOA						
	IRAILA	URRIA	AZAR.	ABEN.	URTA.	OTSAI.	MART.	APIR.	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	
2 urteko modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresei informazioa bidali. • Enpresak aztertu zein instruktore euskaldun dituen. LH Duala euskaraz 4 aldagaiak aztertu: Autodiagnostikoko tresna beteta. 					<ul style="list-style-type: none"> • Enpresari LH Duala Euskaraz dauden dirulaguntzez informatu. 					Ikaslea enpresan lanean jarri, eta jarraipena egin.	
	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleei aurkezpena. 					<ul style="list-style-type: none"> • Proiektua egin. 					Ikasleen esleipena.	
3 urteko modalitateak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleak ezinbestean instruktore euskalduna izan behar du. 					<ul style="list-style-type: none"> • Lau aldagai hartzen dira kontuan: instruktorea euskalduna izatea (ezinbestekoa), harrera euskaraz egitea, hizkuntza paisaiaren %50 euskaraz izatea eta lantaldearen %50 euskaraz aritzea. 					Ikasleak baldintzak eta ezaugarriak ezagutzen dituela ziurtatzen duen konpromisoa, idatziz eta sinatuta.	
	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresak dituen instruktore euskaldunen berri eman. 					<ul style="list-style-type: none"> • Programa datorren eskola-ikasturtean nola abiatu planifikatu ahal izateko, enpresak zer lanbide-profil lortu nahi duen jakinarazi beharko dio ikastetxeari eta enpresak dituen instruktore euskaldunen berri eman. 					<ul style="list-style-type: none"> • Ebaluazioa, Memoria, Estatistikak. • LH Duala euskaraz 4 aldagaiak berrikusi. • Hezkuntzako aplikatibotik Laneki txostena deskargatu. • Ikasleari diploma LH Duala euskaraz markarekin. 	

Euskara kontuan izateko momentu giltzarriak.

Instruktore euskalduna.

Instruktore-ikasle arteko komunikazio hizkuntza euskara.

LH Duala euskaraz 4 aldagaiak.

Autodiagnostiko tresna.

Laneki txostena.

*Dokumentu ereduak Lanenpres eta Lanpres gidetan. lhdualaeuskaraz.eus